

Ikasleen Txokoa kaleratzen da Hernaniko ikastola eta ikastetxeek Hernaniko Udalarekin eta Hernaniko Kronikarekin egindako elkarlanari esker. Datozen hilabeteetan jarraipena izango du.

**ELIZATXO IKASTOLA**

Amaia Puertas - ETBko 'Basetxea' programan partaide

**"Han, mendian, gauzak asko baloratzen dira, nahi duzun hura irabazi egin behar duzulako"**

AMAIA Puertas hernaniarra da eta 29 urte ditu. Aurten ETB 1eko 'Basetxea' programan parte hartu du eta askok ikusi dugu pantaila txikian. Guk hitz batzuk kendu nahi izan dizkiogu.

**Zerk bultzatu zintuen Basetxean sartzera?**  
Esperientzia berri bat bizi nahi nuen. Horrelako programa batean sartzeko gogoz nengelako.

**Zein froga mota pasa behar izan zenituen programan sartzeko?**  
Kasting bat egin behar izan nuen, eta bertan elkar bizitzaren inguruko galderak egiten zizkidaten.

**Zer pentsatu zenuen sartuko zinela esan zizutenean?**  
Gauza asko pasa zitzaizkidan burutik. Hasieran pentsatu nuen, zergatik ni?

**Zein helbururekin sartu zinen Basetxean?**  
Programan sartu nintzen ea gai izango ote nintzen egoera haiei aurre egiteko. Baina gero, ba, finalera iristea eta saria irabaztea ziren nire helburuak.

**Konta iezaiguzu pixka bat zure esperientzia.**  
Esperientzia zoragarria

izan da. Barrutik asko ezagutu dut neure burua eta asko ikasi dut. Han mendian ezer ez duzunean, gauzak asko baloratzen dira, nahi dituzun gauza guztiak irabazi egin behar dituzulako. Hasierako egunetan janaria gordinik zuen poltsa bat eman ziguten. Ez genekien zenbat egunetarako izango ote zen.

**Zein izan da esperientziarik onena eta txarrena?**

Onena, ikustea hango egoeretan nola moldatu naizen. Ez nuen uste gai izango nintzenik. Txarrena, berriz, higie-ne egoera hura.

**Egia al da telebistan ikusten dugun gosea pasa zenutela?**

Bai, benetan horrela da.

**Zein baliabide zenuen zintuzten higiene pertsonalerako?**

Ezta bat ere, ezer ere ez. Basetxean sartzera, gutako bakoitzari zegozkion jantziak eman zizkiguten, eta ez ziguten utzi sartzen guk eramandako xaboa, hortzetako eskuila...

**Gogorra izan al zen ikazkinen bizimodua bizitzea?**

Bai, batez ere kobazuloan hotz handia pasatzen genuelako. Egia



Amaia Puertas hernaniarra ETB 1eko Basetxea programan ibili da aurten.

da, kobazuloan haizeaz babesten ginela, baina hezetasun handia zegoen.

**Programa barruan zeundela, zer baloratu zenuen gehien?**

Gehien baloratu dudana, janaria ez edukitzea izan da.

**Nolakoa izan zen taldekideen arteko harremana?**

Ona, gustura egon naiz. 24 orduz elkarrekin egotea azkenean adiskidetasun sendoa bihurtzen da. Probak jolas bezala hartzen genituen

eta oso ondo pasa genuen.

**Nola sentitzen zinen kameren aurrean hainbeste denbora egonda?**

Gustura. Hasierako momentuan pixka bat zakarra izan zen, baina gero, gustura.

**Sartuko al zinateke horrelako beste programa batean? Jendeari gomendatuko al zenioke?**

Bai, pentsatu gabe, horrelako beste programa batean sartuko nintzateke. Jendea animatzen dut, joan dadila, bizitzaren esperientziagatik. ||



**Oialume, lehen eta orain**

Oialume dantzakia 60. hamarkadan sortu zen, bi gazteren arteko ingude froga batean egindako apustu baten ondorioz. Froga amaitu ondoren soinua jole bat ekarri zuten, jaiarekin jarraitzeko. Hortik aurrera igandero elkartu egiten ziren soinu-jole eta guzti. Hasieran piano teklak zituen eskusoinu bat aritzen zen, denboraren poderioz konturatu ziren arrakasta handia izaten zuela eta beste instrumentu batzuk sartu zituzten. Pixkanaka-pixkanaka arrakasta galtzen joan zen, eta hori ikusita Oialume itxi egin zuten. Denbora igaro ahala Axentxio Barrenetxeari Oialumeko tabernatik hurbil pabilioi bat eraikitzea bururatu zitzaion, bururatu ez ezik eraiki ere egin zuen. Igandetan euskal taldeen kontzertuak antolatu zituzten, adibidez: Izotz, Laiotz, Akelarre... Gero jendea beraien herrietako taberna eta diskoteketara joaten hasi zen eta zubietan bakarrik irekitzea erabaki zuten. Orain noizean behin disko jaiak egiten dute eta jende asko joaten da.

Zuek ere anima zaitzete. ||



# ikasleen txokoa

## Ze pelikula izango dira Biterin urte bukaera arte?

URRIAREN hasieran, urtero bezala, Hernaniko Biteri kultur etxean zine emanaldiari hasiera eman zitzaien. Astero bi emanaldi izaten dira: helduentzat, 3 €-an, ostiraletan, larunbatetan eta igandeetan 19:30ean eta larunbatetan bigarren emanaldia 22:30ean; haurrentzat, 1,5 €-an, larunbatetan eta igandeetan 17:30ean.

Honako hauek dira hurrengo asteetan ikusgai izango diren pelikulak:

### 'Embrujada':

Isabel (Nicole Kidman) izeneko sorgin batek bizitza normala egin nahi du bere botereak erabili gabe. Hiriko beste puntan Jack Wyatt (Will Ferrel) aktoreak bere karrera bideratu nahi du serie zahar baten edizioa berreginez. Baina gauzak aldatzen dira Isabel kontratatzen duenean, biak maitemintzen baitira.

### 'Doraemon':

Nobitak eta Doraemonek lagun berri bat dute Fuuko izenekoak. *Tampestades* izeneko pertsonaiek Fuuko behar dute mundua dominatzeko, eta, beraz, Nobita eta bere lagunak *Valle del Viento*-ra joan behar dira Fuuko salbatzera.

### 'El secreto de los Hermanos Grimm':

Grimm anaien, hau da, ipuin kontalari famatuaren historia kontatzen da. Grimm anaiek (Matt Damon eta Heath Ledger) monstruak garaitzen dituzte diruaren truke. Baina iruzurriak direlakoan, Frantziako agintariak beren bila hasiko dira. Azkenean, benetakako maldizio baten kontra borrokatuko dira neska gazteak desagertzen diren baso misterioitsu batean.



*El secreto de los Hermanos Grimm* pelikulareni zati bat.

### 'Princesas':

Bi prostituten istorioa da. Bata Caye (Candela Peña) izeneko eta bestea Zulema (Micaela Nevárez) kanpotarra dena.

Ezagutzen direnean ez dira ondo moldatzen, baina azkenean konturatzen dira bide berdinetik dabiltzala biak.

## ❖ BIDEO JOKUA

### 'Gran turismo 4' bideo jokua

GRAN Turismo 4- simulazioak ustekabeko mugetara eramandu errealtatea eta birtualitatearen arteko harremana. Abiadura sentsazioak oso erreala dirudi eta kotxeen *tester* batek esan zuen bezala falta zaion gauza bakarra kolpea hartzean telebistatik zerbait ateratzea eta aurpegian jotzea da. Gainera, grafikak ere primerakoak dauzka. Entrega honetan, giza presentzia piska bat handitu da, olio aldatzeko, boxesetan etab.

Joku honetan bi gauza berri egin daitezke; batetik, zure gidatu ordez, zure eskuderiako managerra izan daitezke gidariari aginduak emateko; bestetik, zure kotxearen oroigarri polit bat nahi baduzu argazki modu berri bat jarri dute.

Joku honetan harritzen gaituena kotxe kantitatea da, 720 inguru (50 Nissan Skyline-ak dira baina beno...) eta 52 zirkuitu, hauetatik batzuk, Nürburgring Nordschleife mitikoa adibidez, alderantziz ere erabili daitezkeenak.

Hasiera errazago egiteko aholku batzuk emango dizkizuet:

1-Lortu A eta B karnet nazionalak

2-GT3-tik 100.000 kreditu pasa ditzakezu eta kreditu horiek "Nissan Skyline GT-R V-spec Nur"-a erosi eta saltatu hirugarren pausoa.

3-100.000 horiek ez badituzu, joan "principios de los '90" bigarren eskuko dendara eta "Mitsubishi Lancer Evo. GSR '92" erosi eta olio aldatu GTAAuto-n.

4-"Sunday Cup eta 4WD challenge" irabazi eta hementik aurrera nahi duzun bezala ibili.

Ea aholku hauekin ederki moldatzen zaren.

Orriaren egileak:  
Elizatxo ikastolako DBH 4ko ikasleak

